

Astekaria

BARREN elgoi

Ikasturte berri baten atarian



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

3 LAU HANKATAN

"Pentsamendu honetan eta hartan nabilela, Elgoibarko zineetan sekula ez dudala glamourrik ezagutu oharzten naiz" **Hasier Etxeberria**.

6 ERREPORTAIA: ETXEKO EKONOMIA BALANTZAKA IKASTURTE HASERAN

Matrikulak, kuotak, liburuak eta gero eta sofistikatuagoak diren eskolarako tresnak ordaindu egin behar dira.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: PARTIKULARRETARA JOATEAREN ALDEKO AL ZARA?

Karmele Garzia: "Partikularrak eskola orduetan asignatura bakoitzean egiten den lanaren errefuertzo bat izan behar dira".

Isabel Aizpurua: "Ahalegintzen ote gara haurren heziketaren hutsuneak betetzen klase partikular batera bidali aurretik?".

12 BERBETAN: Duo Plaentxi

"ZAHARTZAROAN ERE ABESTEN JARRAITUKO DUGU"

14 KIROLA:

GAIA: UDAL KIROL KANPAINAKO AZKEN IRTEERAK

ELKARRIZKETA: **Fernando Bautista**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

DULTZAINEROAK: TRADIZIO LUZEA ELGOIBARREN

17 KULTURA

BERTSO ESKOLA BERRIZ MARTXAN HASTEKO PREST

FARMAZIAK:

25, larunbata: **ORMAZABAL**

26, igandea: **ORMAZABAL**

27, astelehena: **BIDASOLO**

28, asteartea: **BIDASOLO**


29, asteazkena: **BIDASOLO**

30, osteguna: **YUDEGO**

1, ostirala: **YUDEGO**

OKINDEGIAK:

26, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



TXANDAK

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00


Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BAREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldegi
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin
Arregi, Belen Arrizabalaga,
Bertso Eskola, Agur Miren
Barandiaran, Hasier Etxeberria,
Maite Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Koldo Lizarralde,
Aitor Lodoso, Nerea Lodoso,
German Meabebasterretxea,
Jasone Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BAREN**ek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Glamour

Munduko hitzik ederrenak frantziarrek asmatu zituzten aspaldi. Beraien hiztegikoak dira *mesie, madam, kruasan, txanpan, koñiak* eta *xarma* hitzak, edo nahiago baduzue, jatorrizko ortografia errespetatuz, *monsieur, madam, croissant, champagne, cognac* eta *charme*. Mademoiselle esaten ere, beraiek izan ziren lehenengoak.

Baina frantziarrek hitz politik sortzeko gaitasunaz aparte, beste bertute bat ere badute: exportatzaile bikainak dira. Eta hala, munduko ardorik eta jakirik gozoenak beraienak direla uste da. Bordeleko ardoak, Armagnac-ak, pateak... Txanpiñoiari ere Paris Perretxikua esaten zaio leku baten baino gehiagotan eta esparragoari, frantses porrua. Izan ere, hain dira finak frantziarrak!

Dena den, egia da hitz politik sortzen eta saltzen apartak direla frantsesak. Horietako bat da Glamour. Zehazki zer esan nahi duen ez dakit oso ondo, baina zine inguruko xarma biltzen duen lurrina da glamourra. Egun hauetan Donostiako Zinemaldia dela eta, Glamourraren testigu izan gara berriz ere. Palazioak eta koktelak. Soineko luzeak eta eskote are luzeagoak. Perfumeak, pitxiak eta taxi


dotoreak. Luxua. Glamourra. Dotorezia.

Guztia, krisian dagoen industria baten inguruko ospakizun baterako. Eta izan ere, zinea ez litzateke ezer glamourrik gabe. Ez litzateke ezer, mitorik sortzeko balioko ez balu.

Pentsamendu honetan eta hartan nabilela, Elgoibarko zineetan sekula ez dudala glamourrik ezagutu ohartzen naiz, eta agian horrexegatik galdu zela Errosario kaleko Zine Zaharra. Hantxe ikusi genituen, magia ilun baten babesean, El Gordo eta El Flaco-ren pelikula guztiak. Santa Ana kaleko Odeon beste hartan ikusi genuen zazpi aldiz segidan La Flecha Amarilla filmea, hantxe ikusi genituen lehenengo titi eta ipurdiak, begirik ederrenak, hantxe ezagutu lehen amodioak. Zine haiei esker ikasi genuen Maltzaga eta Mendaro baino haruntzago munduak beste paraje batzuk ere bazituela. Beltzak, txinoak eta indioak ez zirela misiotako fraileen asmakizun hutsa. Lehoiak eta zebrak, haizeak, gudak eta lurrikarak, denetatik ezagutu genuen han.

Orain Capitol unizipaldua baizik ez da geratzen, eta nahiko lan berak ere zutik irauten. Halaxe daude gauzak glamourrik gabeko telebista garai hauetan.

DEKORAZIOA



**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero
OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Dianari erantzuna

Eskutitz honen bidez, ElgoiBARREn agertutako (93-9-3) Diana Perez de Albenizek egindako idatziari, xehetasun batzuk egin nahi dizkiogu Elgoibarko EAJ-PNVko zinegotziak.

Bertan, Dianak, San Bartolome bezperan gertatu ziren, lokal okupazioa, Ertzantzaren jokaera eta ondorengo detentzioei buruzko bere iritzia agertu zuen.

Lehenik eta behin, gure iritiz, artikulua hori ez da bidezkoa, bere iritzia ez delako objetiboa, bere ahizpa tartean egonda ezin baita izan inoiz inpartziala. Bestalde, ez du azaltzen gertatutako guztia.

Adierazpen hau egiten dugu, elgoiBARREN aldizkaria ez dagoelako inongo alderdi politikori lotua eta ez duelako inongo tendentzia politikorik izan behar. Izan ere, pentsamendu ezberdina eduki dezaketen, eta berez duten, herritarren diruarekin Uda-

lak bere finantziazioaren zati batean parte hartzen du. Beraz, norbaitek politikak egin eta bere pentsaera gainontzeko herritarrei adierazi nahi badie, bidezkoena eta zuzenena bere aldizkari propioa finantziaztea dela uste dugu.

Artikuluaren mamiari buruz, Elgoibarko herritar batzuren portaera salatzen da eta ez dugu uste inor poztuko zenik familia batzuren sufrimendu eta kezkatatik. Baina baliteke, idatziaren egilea eta bere inguruan mugitzen direnak, gertakizunak bukatu ziren moduari buruzko herrikoen adostasuna ikustea eta logikoena beraien buruari hori zergatik gertatu den galdetzea izango litzateke.

Ez dugu nahi idatzi honetan gertatutakoa analizatu, bakarrik argitu elgoiBARREN izpiritu apolitiko eta gure Elgoibarko bizitzari buruzko informazioa emateko sortu zela eta horrela jarraitu behar du, elkarbizitza

errazteko, bakoitzak bere iritziari uko egin gabe bizi gaitzen.

Elgoibarko EAJ-PNVko zinegotziak

Nahikoa da!

Berriro ere jakin ahal izan dugu herri honetako pertsonaia batek bere taxista lana dela eta eskaintzen duen zerbitzu publikoaren bitartez beste neska gazte bat erasotu duela. Ez da lehen aldia exhibizionista honek bereak egiten dituela. Pertsonaia honek ez du nazka eta haserrea besterik merezi.

Harritzekoa da, emakumeekiko erasoak kale mailan hain ezagunak izanik, nola liteke hain lasai ibili ahal izatea bere zioetan. Emakume Taldetik "nahikoa!" esaten dugu eta emakume guztiei dei egiten diegu eraso guztiak salatu ditzaten.

Emakume taldea

elgoiBARREn zuzendaritzaren oharra

1.- BARREn, aste-kariko kolaboratzaileek idatzitako iritziekin ez du derrigorrez zerikusirik eta ez dator beti berauekin bat, ale guztietako 3. orrialdean adierazten den bezela.

2.- BARREn ez du inoiz editorialik izan. 3.orrialdean azaltzen diren iritzi artikulua hasiera-hasieratik gure lau kolaboratzaileek egindakoak dira. Eta bere hartan argitaratu izan ditugu beti.

3.- BARREn asmoa ez da eztabaida politikoetan joerarik hartzea eta beti ahalegintzen da baten edo bestearen alde nahiz kontrako posturarik ez azaltzen.

— AGUAS —
ALZOLA
 — URAK —

T R U K **KAFETEGIA**

San Frantzisko 26, behea
 Tel: 74.26.21

Puff CAFE **TEATRO**

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
 Tel: 74 20 40



Aste honetako erretratua **Ana Mari Mugerzak** lagatakoa da. Berak esan digunez 1948. urtearen bueltan ateratakoa izango da, Etxe-Zuri parean (gazteok galdetu gurasoei Etxe Zuriko taxista non zegoen). Batek baino gehiagok karnabaletako karroza bat izango dela pentsatuko zenuten! Ez ba, “frio, frio...”

Begoña Mugerzak esan digunez “gaueko adorazioaren urrezko eztaiak” ospatzeko prestaturiko aldea da. Begoñaren hitzetan 90 bat urte izango dira Elgoibarren ohitura hau hasi zenetik. Hilean behin gizonezko kua-drila bat elkartzen omen da Jauna gurtu edo adoratzeko. Gizonezkoak diogu, lehen emakumeek ezin baitzuten egin. Egun, emakumeek ere libre izan arren, Elgoiba-

rren 12 gizonezko elkartzen dira hilero Santa Klarako mojetxean.

Ikus dezagun zeintzuk diren aldareko aingerutxoak eta ingurukoak: Goitik behera eta ezkerretik eskumara: **Pilar Iribarren, Pilar Muruamendiaraz, Maribel Aizpitarte, Ana Mari Loiola, Gloria Odria, Maritxu Garate, Mari Ezenarro, Ana Mari Gorostiza, Maria Luisa Bernedo, Ana Mari Mugerza eta Isabelita Urrusolo.**

Ezkerreko mutila: **Pako Cuesta.** Eskumako neskek, ezkerretik hasita: **Mari Karmen Zubizarreta** (Etxezurri), **Nati Maeso, Sor Natividad eta Loreto.**

KEMEN  Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

 *Eskulanean
saiaitzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

GORRÑO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

 **Salvador Celaya**

ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Etxeko ekonomia balantzaka ikasturte haseran

Iraila, ikasturte haseraren hila da. Bukatu dira oporrak eta betikoari heldu behar: eskola, liburuak, irakasleak... O.H.O.ko ikasleak hasi dute ikasturte berria; hezkuntza ertainekoek datorren astean hasiko dute eta Unibertsitateko ikasleak ez dira urrira arte beraien ikas leketara joango. Baina ikasturte haserarekin, burukominak hasten dira sortzen diren gastuak direla eta. Matrikulak, liburuak eta partikularrak ordaintzeak kilikolo jartzen du etxeko ekonomia.



Partikularretara joaten direnen eta ez direnen artean ezberdintasunak sortzen dira.

Eskolara joate-arekin, hainbat gastu berriri egin behar dio aurre poltsikoak. Matrikulak, kuotak, liburuak eta gero eta sofistikatuagoak diren eskolarako tresnak ordaindu egin behar dira. Eta poltsikoak, noski, igarri egiten du batez ere, orain, krisi garaian gauden honetan. Zenbait familiatan lehen-dabiziko semealaba eskolaratzean, liburu eta eskola materiale gastua asko igotzen da, dena erosi beharra egoten baita. Eskola materiale gastua, beraz, ez da berdina familia guztietan. Gurasoak, dena den, esfortzu hori egiteko prest egoten dira

Ikasleak gero eta gehiago eskatzen dio bere buruari kurtso bukaerako batazbesteko nota igotzeko.

semealaben hezkuntzak, noizbait, etekinik ekarriko dituen esperantzaz.

Matrikulak, kuotak eta eskolarako materialeak, ikasturte haseran sortzen diren gastu oinarrizkoenak direla esan daiteke. Izan ere, kurtsoak aurrera egin ahala, hilabete bukaeran buruhauste handiak sortzen dituen gastu bati egin behar izaten zaio

aurre: partikularren gastua. Gaur egun, O.H.O.n zein hezkuntza ertainetan ohizko bihurtu da ikaslea klase partikularretara joatea. O.H.O.n eta Lanbide Heziketarako Institutuan joera hori nabaria bada, are gehiago da Batxiller Institutuan. Azken urteotan, Unibertsitatean gertatu den masifikazioak eraginda, bertan sartzeko baldintzak gogortu egin dira eta egoera horren eragina hezkuntza ertaineko zentruetaraino heldu da.

Partikularrak

Izan ere, ikasleak gero eta gehiago eskatzen dio bere buruari kurtso bukaerako batazbesteko nota

igotzeko. Nota hori lortzeko klasean ikasitakoa gutxi denez, partikularretara jotzen dute. Partikularretara joaten dena eta joaten ez denaren artean izugarritzko ezberdintasuna sortzen da. Irakasleak ere kexu dira klasean sortzen duten desoreka dela eta. Partikularretara doazenek klasearen maila igotzen dute eta nahigabe, partikularrak hartzen ez dituen hartzera behartzen.

Joera hau nabaria da batez ere, Batxiller Institutuan. Bertan egindako azterketa baten arabera, ikasle kopuru osotik hiru laurden, partikularretara joaten dira. Hauetatik gehienak ingelesa ikasten dute eta beste askok, ingelesaren atzetik, noski, matematikak ikasten dituzte. Hauen atzetik, fisika eta kimika leudeke eta ondoren marrazketa eta euskara. Azterketa honek adie-

Gutziz arrunta bilakatu da gaur egun, kurtsoa hasi bezain pronto partikularretan apuntatzea, askotan benetako beharra izan barik.

razten duen bezala, guztiz arrunta bilakatu da kurtsoa hasi bezain pronto partikularretan apuntatzea, askotan benetako beharra eduki barik. Izan ere, Institutuko ikasleen artetik, gehiengoa ingeleseko partikularretara

ESKOLA GASTUAK

OHO

	Hilerokoa	Eskola materiala
IKASTOLA	2.513 pta. (10 hilabete)	15.000 pta. (+/-)
PILAR	2.300 pta. (12 hilabete)	
HERRI ESKOLA	3.500 pta. (Jantokia)	

Hezkuntza ertaina

	Matrikula	Eskola materiala
B. INSTITUTUA	4.700 pta.	20.000 pta. (+/-)
L.H.I.	3.500 pta.	10.000 pta.
I.M.H.	15.000 pta.	(materiala barne)

ESKOLATIK KANPOKO GASTUAK

Akademiak

	Matrikula	Hilerokoa
KENSINGTON	---	5.000- 8.000 pta.
I.M.H.	1.000 pta.	6.000- 8.000 pta.

Euskaltegiak

	Matrikula
AEK Euskaltegia	23.000 pta. (Beka sistema)
Udal Euskaltegia	18.500 pta. (Beka sistema)

Partikularrak

	Hilerokoa
INGELESA	6.500(+/-) pta.
Mat. - Fis. - Kim.	8.000(+/-) pta.
O.H.O.	6.000-8.000 pta.

joaten da Institutuan ematen dena baino gehiago ikasteko. Fenomenu hau ingelesarekin gertatzen da, batez ere.

Beste askok, berriz, ulertzen ez dituen gaiak gainditzeko jotzen du partikularretara eta beste batzuek, gaiak prestatu eta lanak egin eta osatzeko. Gai hauek, matematikak, fisika, kimika eta horrelakoak izaten dira. Gainera, ikasle gehienak, partikular batetara baino gehiago joaten dira.

Arratsaldetan institutu paralelo bat sortu da partikularrekin.

Gutziz arrunta da ikasle bat, ingelesa eta matematikako partikularretara joatea, edota ingelesa eta beste gai bati buruzko partikular batetara. Goizeko Institutuaz aparte, arratsaldeko Institutu paralelo edo partikularraz hitz egin daiteke. Beste hitz batzutan esanda, irakaskuntza publikoa, pribatu bihurtzen da partikularren bidez eta ekonomia aldetik izugarri nabaritzen dute herriko familiek. Gurasoek, semealaba bakoitzagatik batazbesteko bi partikular ordaintzeaz gain, eskolako oinarrizko gastuak deitu ditugunak, solfeoa, dantza, informatika, txistua edo beste hainbat ikastaro ordaindu behar izaten dituzte askotan.

Partikularretara joatearen aldekoa al zara?

Nork ez du bidali bere seme-alabaren bat klase partikularretara? Bidali izan baditugu ere askotan egin izan diot neure buruari galdera hau: merezi al du?



Iraila iritsi da eta partikularretarako irakasleak bilatzen hasten gara: matematikakoa, ingelesekoa, etab.

Badirudi ikasketa-planak egiten dituzten teknikariek edo erakundeek arduratu behar dutela asignaturak aztertzen eta bakoitzari eskaini behar zaion denbora eta ikasleentzat zer den egokiena asmatzen. Hau horrela izanik, klase partikularrik ez luke egon behar.

Beti pentsatu dut klase partikularrak eskola orduetan asignatura bakoitzean egiten den lanaren erre-fuertzo bat direla, eta ume batzuk salbu, besteek ez dutela irakasle partikular baten beharrik.

Beste batzutan, komodidade huts bat besterik ez da guraso-entzat. Seme-alabak partikularrera badoaz ez zara arduratu behar eskolako lanak etxean egin ditzaten. Horrela ez daukagu tabarra

eman beharrik eta gure egitekoetako bat soluzionaturik gelditzen da.

Beste kontu bat da musika, ingelesa, dantza, etab. Nire ustez asignatura hauek inportanteenak izan beharko lukete umearen lehen urteetan. Neska-mutilek, irakurtzen ikasi baino lehen kantatzen, dantzan, marrazten, margotzen, etab. jakin beharko lukete, eta gero, irakurketa, matematika, etab. etorriko lirateke.

Beti pentsatu izan dut 13 edo 14 urte arte ez litzatekeela ikasi behar matematika, lengua, geografia eta halako gai potolorik. Teoria hau oso polita da eta horretan sinesten dut, baina...

...Baina nire seme-alabak dantza, musika, ingelesa, etab.eko klaseetara joan dira. Bai, aitortzen dut, nire seme-alabak ere klase partikularretara joaten dira.

Karmele Garzia



Idatzi hau egiteko eskatu zidatenetik galdera asko sortu zaizkit nire barrenean. Irakasle eta guraso naizen aldetik, galdera hauek zuei zuzentzen dizkizuet.

Eskolatik kanpoko ekintza guztiak klase partikularrak badira, hemen bi talde-tan banatu beharko genituzke. Talde bate-tan hurrek ikastetxe-tan egiten dituzten, edo egiten ez dituzte-nak aberasteko, hau da: solfeoa, dantza, hizkuntzak, etab. Hemen erabakia guraso-ook dugu, eta gainera errespetagarriak iruditzten zaizkit aukera guztiak.

Beste taldean berriz gure hurrek eskola mailan gelako erritmoa jarraitzeko zailtasunak izaten dituztenean laguntza eskeintzeko sortutakoak izango lirateke.

Bigarren taldeko klase hauetaz dira nire galderak batez ere. Beraz, gelan erritmoa jarraitu ezinik dagoen haurrak nolako laguntza behar du? bakarkakoa edo talde txikietakoa noski, berari ego-kitutako ariketa eta atentzioarekin, bere hutsuneak betetzen

joateko. Hau nork eskeini beharko lioke? Nire ustez, lehenik irakasleak ahal duen neurrian, ondoren gurasoak, eta azkenik, horretarako aukeratutako irakasle batek. Maila hauek errespetatzen ote ditugu? ahalegin-tzen ote gara hutsune horiek betetzen klase partikular batera bidali aurretik?. Ez ote dugu oso errez hartzen aukera hori? Nire iritziz bakoitzari dagokigun mailan, ahal dugun neurrian saiatuz gero, gure hurrek klase partikularrera joateko behar gutxiago izango lukete.

Hauek izan dira nere barrenean sortutako galderak.

Eskertuko nizueke bakoitzak bere haurren beharrei begiratu erreflexio bat egitea, klase partikularretara bidali ala ez, ongi erabaki ahal izateko.

Mila esker.

Isabel Aizpurua

ETA ZURE USTEZ?

Partikularretara joatearen aldekoa al zara?



Nekane Zubiaurre

45 urte, etxeoandrea


Behar den bezala eman ez gero eta behar den bezala hartuz gero ume batek ez du partikularren beharrik. Beharra bada, zerbaitek huts egin duelako da.



Arantxa Aldazabal

30 urte, ileapaintzailea


Partikularretara joaten diazenak behar dabelako izaten da, eskolatik aparte laguntza edo sakondu beharra eukitzen dabelako. Beharrezkoa bada ez det gaizki ikusten.



Juan Manuel Torres

36 urte, txoferra


Ez zait ondo iruditzen joan behar izatea, baina dirudiezez ume gehigi dago eta ez dute behar bezalako hezkuntza jasotzen. Gai batzutan ordu gehiago eman beharko lukete eskolan.



Jon Uriguen

24 urte, ikaslea


Eskolan gehiago erakutsi beharko zan. Iruditzen jata maixuak ez diala gehixegi arduratzen eta gero aprobau lortzeko, askotan partikularretara jutia izaten da irtenbide bakarra



Sonia Manzidor

20 urte, administraria

Ni alemana ikastera joaten naiz eta eskolan nengoenian ere joaten nintzen. Normalian ingelesera danak joaten dira baina ez behar dalako, klasean ez dogulako atenditzen.



Ernesto Agirre

68 urte, jubilatua

Gaizki dagola uste dot. Eskolan euren orduetan egin beharko leukete. Handik kanpoko tokiren batera jun bihar badozu eta gainera ordaindu... ez dago batera ondo.

KIROLAK

Errosario 16-18 ☎ 74 32 68

CASA
ASTIGARRAGA

LORAK

BIZIKLETAK

Errosario 27 ☎ 74 43 86

Inoiz baino maila altuagoa aurtengo XIX. Perretxiku Erakusketa-Lehiaketan

Pasa den igandean, hilak 19, Karakate mikologia elkarteak antolatuta eta Aranzadi elkartearen aholkularitzarekin, XIX. Perretxikuen erakusketa eta lehiaketa ospatu zen. Plaza handian, inoiz baino perretxiku gutxiago zegoen erakusgai baina lehiaketan lortutako puntuazioa inoiz baino altuagoa izan zen, haurren jakintza maila ona zela eta. Bostga-

rren postura bitartekoez, ondo aurkeztu zituzten sorta bereziko 12 perretxiku baino gehiago. Lehiaketan bost kideko 33 taldek hartu zuten parte eta guztiek jaso zuten sariren bat.


Karakate elkarteak Udalaren laguntza eskertu nahi du. Halaber eskerrak eman nahi dizkie herriko denda, elkarte eta aurrezki kutxei emandako garaikur eta opariengatik.



Jolasak euskeraz larunbatero

Elgoibarko haurren arteko euskararen erabilpena eskolaz kanpo bultzatzeko asmoz Euskera Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu OHoko 2. mailako haurrentzat. Haurrak larunbat goizero bilduko dira, urriaren 2an hasita abenduaren 11a arte eta besteak beste, txangoak, eskulanak, antzerkiak e.a. burutuko dituzte.

Plazak mugatuak dira eta izena Kultur Etxean eman behar da irailaren 30a baino lehen. (Tel. 74 43 66).



"Ekin euskarari" erakusketa irekita dago pasa den ostiraletik. Irekiera egunean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako zuzendaria, Roman Berriozabal eta Euskera Batzordeko lehendakari den Juan Mari Eguren izan genituen aurkezpena egiten. Erakusketaren ordutegia iluntzeko 7etatik 9ak arte izango da.

SAILKAPENA

- 1- Ganix eta Hodei Ostolaza (573 puntu)
- 2- Igor Gorroño (520 puntu)
- 3- A. Gomez, Alex, Jon eta Raul Vigara (468 puntu)
- 4- Pino anaiak (450 puntu)
- 5- Alberto Diaz (421 puntu)
- 6- A. de la Cruz, E. Etxabe, M. Bergara, E. Astigarraga eta A. Garmendia (401 puntu)
- 7- Vela anaiarrebak (382 puntu)
- 8- Erlanz Oliveira (307 puntu)
- 9- Bello anaiak (288 puntu)
- 10- A. Ortiz de Villalba eta A. Viñaras (277 puntu)

"Amanita Phalloides" saria:

A. Ortiz de Villalba eta A. Viñaras

"Entoloma sinuatum" saria:

J.M. Sanchez, J. Arrieta, J. Aierdi eta G. Sanchez

Aurkezpen onenari saria:

Vela anaiarrebak

Zazpiki ren asanblada

Datorren larunbatean, hilak 25, goizeko hamaiketatik aurrera Zazpiki Irratiaren asanblada berezi bat izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Asanblada honetan honako gai hauek jorratuko dira: festetako txoznaren ebaluazioa, irratia azpiegitura (lokala, garbiketa...), Zazpiki Irratiaren barne eztabaida (kolektiboak jarraitutako norabidearen ebaluazioa eta helburuen berrikuspena), urriko programazioa eta zuzeneko emanaldiak.

ste. : Obren eiekuzioa eta gestio teknikoa

GTE Proyectos, S.A. eraikuntza munduan aritzen den lan talde profesional bat da.

Bere helburua norbanakoari, enpresa txiki eta ertanei, etxebizitza unifamiliar eta etxepekoen bazkunei egin nahi dituzten proiektu eta obrak burutzen laguntzea da.

Ez du axola bolumen , tamaina edo zenbatekoak.

GTE edozein ideiarri aurre egiteko prest dago.



I Zer da G.T.E.?

G.T.E. arkitektu, aparejadore eta dekoratzaile talde batek sortu genuen duela 6 urte. Gu, dena den, aspalditik gabiltza mundu honetan. Gremioen neurri gabeko jokabidearekin ados ez geundenez, G.T.E. sortu genuen; prezio eta kalitatearen kontrola ezartzeko, alegia.

Lehendabizi, bezeroaren beharrak entzun ondoren, proiektu bat egiten dugu. Merkatuko prezioen arabera proiektuaren zenbatekoa kalkulatu dugu. Ondoren gremio batzuei ematen diegu burutu beharreko lana. Obraren zuzendari garenez, obra behar bezala burutuko dela ziurtatu behar dugu. Bezeroak eta guk kontratu bat sinatzen dugu. Hark ordain baldintza batzuk beteko dituela aginduz, eta guk, berriz, aurrez agindutako prezioaren eta epearen barruan burutuko dugula adieraziz. Aurrekontutik kanpo, zerbait sortuko balitz, bezeroari jakinarazten zaio eta ados balego, beste kontratu bat sinatzen du. Kontratuan datorrena beteko ez balitz, arduradun bakarra

legoke: gu geu.

I Zein abantaila ateratzen ditu G.T.E.k?

Urtean zehar gremio batzuekin egiten dugu lan. Ni haien bezeroa naiz, ona gainera. Horregatik, prezio merkeagoa egiten didate eta guk etekina ateratzen dugu. Bezeroari begira, prezioa berdina da abantaila batekin: bezeroak ez du ezer egin behar; kontratua sinatu duenez, badaki noiz bukatuko den obra, badaki prezioa ez dela aldatuko, eta ez dauka erakundeekin tirabiraka ibili beharrik.

I Zeintzuk osatzen duzue G.T.E.?

Hiru bazkide gara eta administrazio bat. Eguneroko lanean Rafa Gabilondo aparejadorea eta biok,

ni dekoratzaile gisa, gabiltza. Gutaz aparte tekniko talde bat aritzen da lanean.

I Zein lan burutzen duzue bakoitzak?

Nik proiektuak gestionatu, aurrekontuak aztertu eta kalitatea kontrolatzen ditut, eta Rafak, proiektuak gauzatzen ditu erizpide amankomun batzuen arabera.

I Zer iritzi diozu Elgoibarko lokalen dekorazioa eta etxegintzari?

Udalak, erizpide estetiko batzuk betearazi beharko lituzkeela uste dut. Herriari dagokionez, argi dago egurra eta harria gorde behar direla. Nire eskutan balego, materialea merkeagotzen saiatuko nintzateke. Herriko kasko zaharrean harria jartzea ondo dago, baina bihotzarekin pentsatu ordez, pentsa dezagun buruarekin. Badaude materiale alternatiboak, hormigoia kasu, merkeagoak direnak eta estetikoki emaitza berbera ematen dutenak. Egurrari dagokionean, gauza bera esan. Pentsakeraz aldatu beharra dagoela uste dut.



"Zahartzaroan ere abesten jarraituko dugu"

Jesus Urizar eta Jose Luis Badiola plaentxiarrek urteak daramatzate plazarik plaza Hego ameriketako kantuak jendeari gerturatzen.

Beti daude prest edozein ekintzaren alde dohainik abesteko eta gure artean izan ditugu kantu kantari beti bezain alai eta umoretsu.

- Non eta noiz hasi zintzen elkarrekin abesten?

- Kantuan, duela 28 urte hasi ginen. Orduan gu biok eta Ines Maiztegi hirukotia "Trio Nubay" osatzen genuen. Elkarrekin bi urte inguru egin genituen. Gerora utzi, eta gu inguruan bizi ginenez abesteari ekin genion berriz. Lehenengo emanaldia duo bezala, Eibar-ko "Inazio Restaurantian" Justina Abaskali egindako omenaldian izan zan.

- Zer dela eta "Duo Plaentxi"?

- Elgoibarren bizi garen arren, plaentxiarrak garelako.

- Nondik nora ibili zarete abesten?

- Euskal Herriko geografía guztian ibiliak gara. Eta mota guztietako lekuetan kantatzeko aukera izan dugu, kamioi, zinema, frontoi, ETB... Baina normalian, hemen inguruan ibiltzen gara.

- Zer publiko joaten da zuen emanaldietara?

- Adin guztietako publikoa izaten dugu gure emanaldietan. Musika mota hau, mundu guztian gustatzen zaio. Bes-



"Ondo kantatzeko, berezko zentsu musikala deritzona izan behar da."

talde, ingurune pribilegiatu batetan bizi gara, Eibar, Plaentxi... non betidanik tradizio handia egon den musika hau entzuteko. Lastima da, gaur egun, jende gazteak ez duela aukera handirik izan musika hau ezagutzeko; ondorioz, ez dute jarraitzen eta entzuten ere; gainera, oso talde gutxi geratzen gara.

- Kontzertu bat aipatzekotan?

-Kontzertu asko gogoratzen ditugu. Baina bat aipatzekotan, Sergio eta Estibalizekin jo genuene-

an, hura benetan hunkigarria izan zen.

- Abeslari on bat izateko zein ezaugarri izan behar dira?

- Ondo kantatzeko, berezko zentsu musikala deritzona izan behar da. Batez ere belarri ona eta musikaz ulertzen bada, hobe. Gure kasuan, entzumenaz gidatzen gara; abestia liburu edo diska batetik atera eta gure erara moldatzen dugu. Dena den, musika asko gustatu behar zaizu dedikazio handia eskatzen baitu.

- Zein musika mota entzuten duzue?

- Mota guztietakoa. Batez ere entzungarria izan dadila. Ah! hori bai! orain modan dagoen bakalao delakoa adibidez, ez zaigu batere gustatzen, zarata hutsa da eta ez diogu inolako zentzurik hartzen. Oso gogoko, banden musika dugu.

- Planteiatu zarete noizbait musikatik bizitzea?

- Guretzat hobby bat da. Gazteagoak ginenean aukera izan genuen musikara dedikatzeko baina gazteegiak ginenez atzera egin genuen.

- Kontzerturen batean gertatutako bitxikeriaren bat...

- Plaentxiko Gabolatx auzoan abesten geundela hogierleko bat bota zigiten eta gitarra hautsi zidaten. Ez dakit nola, baina emanaldia bukatu genuenean ohartu nintzen gitarra apurtuta zegoela. Sinestezina dirudi, ezta?

- Noizbait erretiratzeko asmorik bai?

- Ez, hori ez dago gure planetan. Zahartzen garen ere jarraituko dugu abesten, bastoi eta guzti.

Maite Iriondo

Zorione Elorza

Zobel dendakoa

-Zer eskaintzen da “Lenceria” batetan?- Konjuntoak, bodyak, pikardiak... Baita pijama eta batak ere.

- Zer da gehien saltzen dena?

- Gehien konjuntoak, gero bodyak.

- Zer kolore aukera dago? - Kolore aukera zabala da, baina hemen jendeak beti aukeratzen du zuria.

Gainera, azken moda bezala berriz zuria dator.

- Zer bilatzen du jendeak, praktikotasuna ala sentsualitatea?

- Opariak erostera datozenean ez dira hain gauza praktikoak erosten, baina norberarentzat danean, batez ere gauza praktikoak.

- Gizonezkoak animatu al dira beraien barneko erropa piska bat “alaitzen”? - Ez, eurak ez. Andrek erosten dizkiete normalean.

- Gizonezkoak emakumeentzako barneko erropak erostera etortzen al dira? - Bai, gero eta gehiago. Opariak erostera.

- Zer erosten dute? - Batzuk ideia fijoarekin etortzen dira, bestela guk eskeintzen dieguna. Normalian bodyak. Pikardiak gutxi.

- Lotsatiak al dira? - Bai, baietz uste dut. Batzutan ia begiratu ere egin gabe erosten dute.

- Nolako bilakaera ikusten duzu zuk garai batetik hona barneko erropetan? - Orain modelo askoz gehiago daude, kalitatea ere hobea da, genero berriak: likrak, zeta, “rasoak”... Kolore aldetik ere aukera handiagoa dago.

- Pijama ala kamisoia? - “Lenceria” bezala kamisoia sexyagoa da.

- Salmenta gehien duzuen garaia? - Gabonak ingurua.

- Kolorerik erakargarriena? - Neretzat zuria da finena, baina beltza ere oso erakargarria da.

- Enkajezkoak ala lisoak? - Enkajezkoak. Lisoak gazteek eramaten dituzte, baina hauek ere enkajea gero eta gehiago eskatzen dute.

- Estantpatuak ala kolore bakarrekoak? - Kolore bakarrekoak.

- Bikinia ala bainujantzia? - Bikinia.

- Zergatik uste duzu jendeak barneko erropetan dirua gastatzen duela? - Barrutik ondo jantzita joateak seguridadea ematen duelako, sexy egoteko.

- Nori jantziko zenizkioke zetazko galtzontzilo batzuk? - Nere gizonari.

Agur Miren Barandiaran



BERTSOTAN

SAN MIGELAK

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

San Migeltarrak nola ditugun auzoaren zerbitzari aurtengoz ere jarria dute festa alai ugari bertsolari ta herri kirolak erromeri ta dantzari egizko euskal jaiak dirala hori ongi da nabari bisitatxo bat egin beharra dago San Migel gainari (Bis)

Txirrindulari igoera ta pelotarien jardunak bola joko ta ume jolasak denok maite ditugunak gauan erdiko oilasko erre txanpan trago ezagunak uda azkenak izanagaitik bere lenengo egunak aurtengo azken jaiak dira ta aprobetxatu lagunak (Bis)

Ziarda



ARRATS

Pub

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58



Ehiza txapelketa

Hil honen 25ean eta La Union Elkartek antolatuta txakurrez lagundutako ehiza txapelketa burutuko da. Herri mailako txapelketa hau San Migel auzoko Ziarda mendian izango da eta parte hartzaile bakoitzak laguntzaile bat eraman beharko du.

Mintxetaren erabilera

Aste honetatik aurrera indarrean sartuko da Udaleko Kultur Batzordeak pasa den astelehenean Mintxetaren erabilerari buruz onartu zuen araudia. Elgoibarko klubek doan erabili ahal izango dituzte instalazio ezberdin guztiak. Herritarrek atletismo pista erabili ahal izango dute doan eta dutxatzeagatik 200 pezeta ordaindu beharko dute, kanpotarrek 500 pezeta ordaindu behar izango dutelarik. Futbol zelaia osorik (5.000 pta/orduko) edo erdia (3.000 pta/orduko) eta 40x20 metrotako pista (2.000 pta/orduko) alokatu ahal izango da, dutxa barne.

Mintxetako ordutegia 11etatik 1era eta 4,30etatik 9,30etara bitartean izango da.

Jubenilak garaile

C.D. Elgoibar Eskubaloi taldeak antolatutako *Elgoibar Herriko II.* eskubaloi txapelketan jubencilen kategorian Elgoibarko taldea garaile geratu zen. Jon Zubiaurre elgoibartarrak jokalaritaren onenaren saria jaso zuen. Kadete mutilen mailan, Elgoibarko taldea bigarren postuan geratu zen Bergarakoen atzetik. Astebukaera honetan, hilak 24, senior mailako nesken taldearen txanda izango da.



Fernando Bautista:

"Harro gaude bigarren gelditu garelako"

-Nola bururatu zitzaizuen Donostiako "II. Street Basket" txapelketan parte hartzea?

-Egunkariko anuntzio batean irakurri genuen. Abuztuan, Aste Nagusian zehar izan zen txapelketa. Richard Aranzabal, Carlos Lahoz eta nik zereginik ez geneukanez parte hartzea erabaki genuen eta bide batez aprobetxatu Aste Nagusiko giroa ikusteko.

-Zertan datza txapelketa?

-Hiru jokalarik jokatzen dute eta kanasta bat dago. Lehenengo egunean lau ekipoko taldeak, denek denek kontra jokatzen dute. Horrela eliminatoriak pasatzen dira eta azken egunera heltzen bazara finala jokatzen duzu.

-Zuei nola joan zitzaizuen?

-Ondo. Lehen egunean beste hiruei irabazi genien, bigarrenean ere ondo eta gero, finalean, galdu egin genuen.

-Lehenengoak gaindiezinak al ziren? -Lehen gelditu zirenek "Askatuak" taldean jokatzen dute. Lehendabiziko partiduetan Alonso anaien aurka jokatzeko tokatu zitzaizgun. Alonsotarrak Donostiako bi anaia dira, ACBn eta Espainiako Selektzioan jokatu izan dutenak. Maila handiko jendearen aurka jokatu dugu.

-Harro egongo zarete, ez? -Bai, oso inportantea izan da guretzat. Gainera, jokalaritaren onak haserako parti-



duetan tokatu zitzaizkigun eta irabazi egin genien oso kontentu geratu ginen. Gainera, beraiek etxekoak ziren eta gu kanpotarrak; ikusleek beraiek animatzen zituzten. Juerga ederra muntatu zen.

-Noiztik zabiltzate saskibaloian jokatzen? -Duela 10 urtetik. Batxillergoan, La Sallen, txapelketa batean jokatzen nuen. Kuadrilakoak bertan ikasi ez arren apuntatu egin nituen eta harrez geroztik edozein txapelketatan hartzen genuen parte. Horretaz gain, batzuek Arraten eta horrelako taldeetan jokatzen zuten.

-Elgoibarren talderik sortzea pentsatu al duzue? -Donostiako txapelketan, Federazioko presidentea hurbildu eta Elgoibarren talderen bat sortzeko aukera ote zegoen komentatu zigun. Arazoa da urtean zehar kanpoan gaudela ikasten.

● **Adina:** 24.

● **Talde favorittoa?** Seattle Supersonics.

● **Jokalaritaren favorittoa?** M. Jordan.

● **Zein postutan jokatzen duzu?**

Alero gisa.

● **Beste kirolirik?** Txirrindularitza.

LIZZY
Errosario, 25 - ☎ 74 23 02
GAZTEENTZAKO MODA

GURBIL *Jatetxea*
- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak
Orain probatu etxean egindako PIZZAK
Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Udal Kirol kanpainako azken irteerak

Pasa den astebukaeran, hilak 17, Udalak antolatutako Udako Kirol kanpainako azkenetariko irteera burutu zen Guarako mendietara. Ostiral arratsaldean, 15 elgoibartar, "Xauen bidaiak"eko Adrian Langara gidari zutelarik, Huescako Guara aldeko errekak jeistera joan ziren. Larunbatean lehen erreka jeitsi zuten. Ibilbidea nahiko luzea izan zen, bost ordukoa gutxi gora behera, eta bukaera ur putzu handi batean izan zuten. Bide harritsuak, zuloetatik pasa beharra eta jauziak edo saltoak ugari egin behar izan zituzten. Igan-dean bigarren erreka jaitsi zuten. Aurreko eguneko erreka baino moztzagoa izatea espero zuten arren, azkenean 10 orduko ibilaldia egin zuten. Dozena inguru "rapel" eta toki estu eta aldapatsuetatik pasa behar izan zuten errekarara heldu aurretik. Errekan sartu eta gero kost



Argazkilaria eta gida falta arren, hona hemen errekak jeisten jardun zutenak.

egin zitzaizen irteera aurkitzea. Hori dela eta, asko berandutu zen bueltako bidaia.

Datorren astebukaeran, hilak 24, Udal Kirol kanpainako azken irteera

gingo da Sella ibaia piraguaz jeisteko. Guara mendietara eta Sellara irteerak kanpaina guztiko arrakastatsuenak izan dira eta, izan ere irailen errepikatu behar izan dira.

DEITU EZAZU HOTZA HELDU AURRETIK

LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:


- hotza
- haizea
- hautsa
- zarata
- polena

SARTZEN BAZAIZU...

glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR



ALTZAIRU
INOXIDABLEZKO
BURLETEAK

Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

- ▲ Edozein ate edo leihotarako
- ▲ Leihoak aldatzea baino 10 aldiz merkeago
- ▲ Berogailu gastuetan %30 gutxiago
- ▲ Leihoak ere konpontzen ditugu

**OBRARIK GABEKO
INSTALAZIO AZKARRA**

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

74 30 94 - 74 43 54

Dultzaineroak: tradizio luzea Elgoibarren

1971. urteko Eguberri egunean, abenduaren 25ean, jo zuten lehen aldiz Txomin Mujikak, Bittor Zubiaurrek eta Ricardo Gorritik goizeko diana. Dultzaina San Bartolome jaietan bakarrik entzutera ohituta, harrituta gelditu zen jendea herriko hiru pertsona dultzaina jotzen ikusi zituztenean. Harrez geroztik, ehundaka aldiz ikusi ditugu goizeko diana jotzen, erraldoi eta buruhandiekin kalejiran edota Haritz Dantzari taldekoekin jardunean.

Dultzainarekin hasi aurretik hiruak Musika Bandako kide ziren eta txistua ere jotzen zuten. Estellako dultzaineroak etortzen ziren bakoitzean, dultzaina nola jotzen galdetza ibiltzen ziren. Baina ondo baino hobeto gordetako sekretua zenez, beraien kontu hasi behar izan zuten. Metodu bat eskuratu eta Gasteizen erositako metalezko dultzainarekin lanari ekin zioten. Urte batzutan materiale horrekin jarraitu ondoren, Jaime Arrese zenaren bitartez Iruñean egindako egurrezko dultzainak eskuratu zituzten.

Herriko dultzaineroak Musika eta Dantza Fundazioaren baitan daude. Hori dela eta Udalarekiko zenbait obligazio bete behar izaten dituzte. Musika

Bittor Zubiaurrek dultzainen bokilak egiten ditu lokalean duten tailer batean.

Izan ere, badira hamar urte bokila bat erosi ez dutela.

Bandak kontzertua ematen duen bakoitzean, dultzaineroek ere jotzen dute. Herriko jai nagusienetan ere, noski, jo beharra izaten dute. Herritik kanpo, aurtan, San Ferminetan, Gasteizko jaietan eta Bilbokoetan aritu dira. Dena den, dultzainak Iruñean du batez ere, indarra. Hori dela eta, hiruzpalau bat aldiz jotzen dute bertan.

Dultzaina jotzeaz aparte, bokilak beraiek egiten dituzte. Bittor Zubiaurrek egiten ditu, lokalean daukaten tailer tankerako batean. Izan ere, badira hamar bat urte bokila bat erosi ez dutela. Lan zaila omen da bokilak egitearena, zehaztasun handikoa.

Hirukote honen aurretik Elgoibarren ba omen ziren dultzaineroak. Albitxuri zaharrak, Urtiakoak eta Ballegoiti baserrikoak, esaterako, dultzaina jotzen zuten. Jotzeaz gain, Elgoibarren metalezko dultzainak egiten ziren. Juan Mujikak egiten omen zituen. Gipuzkoan eta Bizkaian ere, metalezkoak ziren dultzainak, egurrezkoak baino makalagoak,



← Ricardo Gorriti, Bittor Zubiaurre eta Txomin Mujika.

eta gainera bakarka jotzen zen. Nafarroan, aldiz, betidanik egurrezko dultzainarekin, askoz indartsuagoa dena, bi edo hiruk jo izan dute.

Errepertorioari dagokionean, gaur egun edozein pieza, erraz lor daitekeela esan digute. Hasierran, ordea, beste modu batekoak ziren gauzak. Magnetofoi bat hartu eta dultzaineroen atzetik ibili behar izaten zuten piezak grabatzen. Gaur egun, berriz, errepertorio zabala dago, eta hori horrela bada, Javier Lacunza dultzaina egile eta joleari esker da.

Edonork dultzaina ikasi nahiko balu, dakitena edo-

zeini irakasteko prest daude herriko dultzaineroak. Instrumentu gogorra da, indar nahikoa behar delako, eta horrezaz gain, hiru bat lagun behar dira jotzeko. Dena den, bizikletan ibiltzea bezala, ikastea besterik ez da.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1971

Iharduera: Dultzaina

Kideak: 3

Entsaiuak: astean bi

Aktuazio kopurua: 17

Diana, eta erraldoiekin

eta Haritz dantzari

taldearekin laguntzaile

Lokala: Aita Agirre

plaza

Elgoibarko Izarraren Bertso Eskola berriz martxan hasteko prest

Aurten ere, iaz ekin zioten bideari jarraituz, Bertso Eskola lanean jartzeko prest daude Elgoibarko Izarra Elkar-terko bertsozaleak.

Bertso Eskolako arduradun eta irakasle den German Meabebasterretxeak esan digunez, aurten ere hiru talde egongo dira: Eskoletako haurren taldea, bapatean aritzeko taldea eta nagusien taldea.

Eskolak urrian hasi eta ekainean amaituko dira, astean ordubeteko klaseak emanaz. Eguna eta ordua talde bakoitzak ipintzeko aukera izango du.

Lehenago aipatu bezala irakaslea German Meabebasterretxea elgoibartar bertsolari gaztea izango da eta klaseak dohainik izango dira.

Izena eman nahi due-

nak irailaren bukaera arte izango du aukera. Izena emateko jo Elgoibarko Izarrak Urbitarten duen lokalera edota deitu 74 16 26 telefono zenbakira.



↳ Pasa den kurtsoko bertso eskolako kideen argazkia.

Kilometroak 93rako autobusak

Aurten ere Elgoibarko Izarra Elkar-terkoak, autobusak antolatatu ditu *Kilometroak 93ra* joateko. Aurten urriaren 3an, Ordizian izango da eta autobusez joan nahi duenak urriaren 1goa baino lehenago eman beharko du izena elkar-terko Ubitarten duen lokalean. Prezioa 800 ptakoa izango da.

Euskararen normalizazioa

Irailaren 28an Elgoibarko kultur Etxeko hitzaldi aretoan Elgoibarko Udalak eskatu eta Siadeco enpresak egindako lanaren aurkezpena izango da. Lan honetan Elgoibarren euskararen normalizazio bide egokirik emateko urratsak landu ditu aipatu enpresak. Aurkezpena arratseko 7etatik 9ak arte izango da.

SAINT - GERONS

Txokolateak



75 5115

Arpilgoeta, 37 Mendara

24 Ostirala

21,45 ZINEA

"Delicatessen" (Frantzia 1991)
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba
Zuzendaria: J.P. Jeunet
Aktoreak: D. Pinou, M.L. Dougnac, K. Viard.

25 Larunbata

11,00 ZAZPIKIREN BILERA

Tokia: Kultur Etxea

16,00 ESKUBALOIA

Senior mailako nesken finalerdiak
Tokia: Olaizaga kiroldegia

17,00 FUTBOLA

Elgoibar-Getxo
Tokia: Mintxeta

21,45 ZINEA

"Desafio Total" (USA 1990)
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba
Zuzendaria: P. Verhoeven
Aktoreak: A. Swarzenegger, R. Ticolin, S. Stone.

26 Igandea

11,00 ESKUBALOIA

Senior mailako nesken finalak
Tokia: Olaizaga kiroldegia

12,00 FUTBOLA

Elgoibar-Urki (2. errejionala)
Tokia: Mintxeta

17,00 FUTBOLA

Elgoibar-Aurrera (kadeteak)
Tokia: Mintxeta

21,45 ZINEA

"Eternamente joven" (USA 1992)
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

28 Asteartea

18,21 AZTERKETA SOZIOLIN-GUISTIKOAREN AURKEZPENA

Hizlaria: Kike Amunarriz
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Euskara Batzordea eta Elgoibarko Izarra

29 Asteazkena

19,00 EMAKUME GAZTEEN TALDEAREN ASANBLADA

Tokia: Lanbroa taberna atzean



"Delicatessen"

Pelikula liluragarria eta oso entretenigarria. Gerra eta krisi garaian, elikagai eskasiak eraginda, bizirik irauteko ahaleginak egiten dihardute erortzeko zorian dagoen etxebizitza fantasmagoriko batean bizi diren auzokideak. Komiki mundutik hurbil, pertsonaiak benetakoak dira. Poesiazko umore beltz garratzez buztitako hizkuntza bisualagatik oso txalotua izan da zinemaldietan.

"Desafio total"

Quaid-ek Martera bidaiara egin anhi du. Dirurik ez daukanez eta inplantazio zientifiko bat medio, ametstetan egingo du bidaiara. Martera heltzean, planetaren ordenurako arriskutsu bihurtuko da Quaid. Marten mutanteen matxinada gertatuko da. Abenturazko filmea da, komikia eta fikziozko zinearen artekoa.



SAN MIGEL AUZOKO JAIAK

IRAILAK 24 OSTIRALA

20,00: Jaien hasera txafliu eta kanpai jotzarekin
22,30: Idi demak Artadialde, Arientza eta Erraistarekin
(Sariak: 1.-150.000 eta garaikurra, 2.-140.000 eta garaikurra, 3.-130.000 eta garaikurra)
Ondoren: Erromeria Azkonabieta eta Jokinekin.

IRAILAK 25 LARUNBATA

22,30: Haritz dantza taldea eta auzoko trikitilariak
24,00: Berbena Luhartz taldearekin(Gau pasa)
24,30: Bola txapelketa
(Sariak: 1- Sthil motoserra, 2- 8.000, 3- 6.000, 4- 4.000, 5- 2.000, 6- Ustekabea eta garaikurra auzoko 1.arentzat)

IRAILAK 26 IGANDEA

11,00: Meza nagusia
Ondoren: Trikitilari eta bertsolariak
12,30: Txirindularitza: "VI. San Migelera igoera"
Ondoren Pilota partiduak
17,00: Herri kirolak. Aizkolariak:Olasagasti eta Arrospide. Harrijasotzaileak: Goenatxo, Egi eta Zelai. Txinga eramatea gizon eta emakumezkoentzat
22,00: Erromeria Maixa eta Itziarrekin

SAN MIGEL EGUNA

IRAILAK 29 ASTEAZKENA

11,30: Meza nagusia Meabe eta Ziarda bertsolariekin
Ondoren: Bertsolariak eta Maite eta Iker trikitilariak
22,00: Erromeria EGAN taldearekin

Etxebizitzak

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpoko aldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketenezat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 8Belen.**

Neska euskalduna naiz eta haur bat zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. **Deitu 74 07 30**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 16 89**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak. **74 41 94. Sanchez.**

Wind-surfeko tabla bat saltzen dut. Estrenatu gabe. prezio interesgarria. **74 03 92 eguardian 74 04 65 gauzez. Lorea.**

Automodelismoko kotxea (4 WD KYOSHO) eta emisora (SANWA, oso berria)saltzen dut.. Erregaluz: 3 bateria, errobera joko bat, bi kargadore (bat motela eta bestea azkarra), e.a.... **74 03 92 eguerdian. 74 04 65 gauzez. Dani.**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N **74 14 80 Javi**

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **74 02 09 Ainhoa**

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

Lana

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz. **74 13 11 Javier**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Marrazketa Teknikoan arazok baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei **Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira**

Klase partikularrak emateko prest nago OHoko haurrei. Magisteritza tituloa eta ingeneritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

O.H.O.ko klase partikularrak emateko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 36 39 / 74 05 33**

COU, FP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet. **Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60**

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

Salerosketak

Pastor aleman arrazako txakur kumeak saltzen ditut. Pedegree . Jatorri ezinhobekoak. **74 41 32 Fernando**

YAMAHA TZR-80 c.c. saltzen dut. Egoera onean. **Deitu lan orduetan. 11 33 32**

SEAT PANDA 40 bat saltzen dut. SS-W matrikula. **74 15 22 Itziar**

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da. **Deitu 74 28 56 gauzez.**

TOYOTA LAND CRUISER SS -AF bat saltzen dut. **Deitu lan orduetan 74 13 33**

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neska- ren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Umeentzako bizikleta eta uretako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

Kontaktuak

Donostian pisua konpartitzeko neskak behar dira. **Deitu 74 08 72**

ARMUETA
Baserriko harabetan berezia

Harategi Urdaitegia
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

INTERIORES
 - SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
 - ATE TOLESGARRIAK
 - BARRUKO ARMAIRUAK
 - DEKORAZIO GAIK
 Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
 Errosario 15 Behea.

PUB

elgoibar



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR